



MUNITIBAR – AULESTI – GIZABURUAGA – AMOROTO – MENDEXA

LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOA GIZARTE ZERBITZUAK

Elexaldea - Eguen, 3 – 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 684 29 63 Faxa: 94 684 44 22 www.leaibarra.com

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN INTENTSITATEAK

Derrigorrezkoak:

Zerbitzuaren gehieneko intentsitatea Bizkaiko Foru Aldundiak mendekotasunari buruz egindako balorazioaren arabera ezarriko da.

Aipatutako abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera besteen beharra duten pertsona gisa sailkatutako lagunei gehienez hilean ordu kopuru hau esleituko zaie:

a) Beste prestaziorik edo zerbitzurik ez duten pertsonen, menpekotasun balorazioaren arabera honenbeste ordutan jasoko dute zerbitzua:

- III gr., Menpekotasun handia (75-100 puntu): gehienez 57 ordu hileroko.
- II gr., Menpekotasun larria (50-74 puntu): gehienez 40 ordu hileroko.
- I gr.; Menpekotasun moderatua (25-49 puntu): gehienez 20 ordu hileroko.
- Menpekotasun arriskua (23-24 puntu): gehienez 20 ordu hileroko.

b) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta familia-ingurune zaintzarako prestazio ekonomikoa bateragarriak dira prestazio hori onartzen den egunetik aurrera. Kasu horietan, zerbitzuaren intentsitatea gutxituko da, lege onartutako gutxieneko intentsitatea bermatuz

BALORAZIO MOTA	Prestazio ekonomikoarekin gehienez hileroko (DERRIGORRA DUGU ZERBITZUA EMOTEA)
III gr. menpekotasun handia	46 ordu
II gr. menpekotasun larria	30 ordu
I gr. Menpekotasun moderatua	20 ordu
Menpekotasun arriskua	20 ordu

Derrigorrezko zerbitzua eskatzen duenean, eskaera onartu egin behar dugu eta zerbitzuari lotutako prestazioa onartu behar dugu.

c).- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta eguneko edo gaueko zerbitzua bateragarriak diren kasuetan, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren intentsitatea murriztuko da, hala badagokio, zerbitzua modu horretan emanez, eta ez da beharrezkoa izango zerbitzua ematea.

- III gr., Menpekotasun handia (75-100 puntu): gehienez 20 ordu hileroko.
- II gr., Menpekotasun larria (50-74 puntu): gehienez 20 ordu hileroko.
- I gr.; Menpekotasun moderatua (25-49 puntu): gehienez 20 ordu hileroko.
- Menpekotasun arriskua (23-24 puntu): gehienez 20 ordu hileroko.